



| | |
|------------|---|
| UNITATEA | EUSKARA ETA HEZKUNTZA |
| XEDEA | 28 KANALA: DIRULAGUNTZA IZENDUNA |
| ORDEZKARIA | YON ALDANONDO ALBISU |
| TITULARRA | TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL |

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatu Garbiñe Marzol Ormazabalena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Komunikabideak SLk, 2024ko otsailaren 20an, eskaera bat aurkeztu zuela Tolosako Udalaren sarrera-erregistroan (erregistro-zenbakia: 2024-2691), helburu honekin: 2024. urteko jardunari dagokion dirulaguntza izenduna jasotzea. Eskaera hori osatu egin zuen 2024ko apirilaren 11n (erregistro-zenbakia: 2024-4972).

BIGARRENA.- Dirulaguntza izendunaren xede den jarduerarako aurrekontu xehetua aurkeztu duela enpresak.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Titularrak badaukala gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion, aintzat hartuta zer xedatzen duen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 3. eta 4. artikuluetan.

BIGARRENA.- Prozedura honetan araudi hau dela aplikatu beharrekoa:

1. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
2. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Lege Orokorri buruzkoa.
3. Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzen lege orokorraren erregelamendua onartzen duena.
4. Toki Erakunde Zerbitzuei buruzko Erregelamendua, 1995eko ekainaren 17ko Dekretu bidez onartua.
5. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
6. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.



7. 130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituen.
8. Tolosako Udalaren diru laguntzen Ordenantza Orokorra, Tolosako Udalbatzak 2023ko urtarrilaren 26an onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2023ko apirilaren 11n (68. zk.).

HIRUGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2024ko apirilaren 11n, dirulaguntza ematea proposatu zuela, baita horretarako hitzarmena sinatzea ere.

LAUGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak, 2024ko maiatzaren 8ko txostenean, hitzarmen-proposamena aztertutik, adierazi zuela legezko baldintzak betetzen dituela.

BOSGARRENA.- Kontuhartzaitza Saileko teknikariak, 2024ko ekainaren 15ean, dirulaguntza izenduna ematearen aldeko txostena egin zuela. Eskatu zuen justifikazioari buruzko artikuluan aldaketa batzuk egitea, zuriaketa nola egin hobeto jasoa gera dadin, eta eskatutako aldaketa guztiak egin dira hitzarmenaren azken testuan.

SEIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. s) artikulua arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola dirulaguntza izenduna emateko eskumena. Tolosako alkateak zinegotzi delegatuei eskuordetua die eskumen hori, 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetza Dekretuaren bidez.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Dirulaguntza izenduna ematea Tolosako Komunikabideak SLri, 39.772 euroko zenbatekoarekin, 2024ko udal-aurrekontuko partida honen kargura: 0900.481.14.33510.

BIGARRENA.- Dirulaguntza bideratzeko hitzarmen hau sinatzea Tolosako Komunikabideak SLrekin:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL- REN ARTEKOA

Tolosako Udaletxean,

ELKARTURIK



Alde batetik, Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegiko Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Begoña Garmendia Vazquezek lagunduta.

Eta bestetik, Ion Aldanondo Albisu (NAN 34.108.860-K), Tolosako Komunikabideak S.L.-ren izenean. Egoitza soziala: Tolosako San Esteban auzoa, 20. IFK: B-20915468.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2023/1718 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Tolosako Komunikabideak S.L.-ren (aurrerantzean 28 Kanala) ordezkari gisa, 2012ko abenduaren 14ko 10400308 eskrituretan agertzen denaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- 28 Kanalak, 2024ko otsailaren 20an Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez (sarrera erregistroko zenbakia: 2024-2691), proiektuen eta jardueren plana aurkeztu zuela, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz; dokumentazio hori osatu egin zuen 2024ko apirilaren 11n (sarrera erregistroko zenbakia: 2024-4972). Aurkeztutako egitasmoaren aurrekontuak 438.909 euroren gastuak ditu, eta 438.909 euroren diru-sarrerak (Tolosako Udalaren dirulaguntza-ekarpena barne), dirulaguntza-eskaeraren helburu diren jarduera hauek gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da.

- Euskara Sailaren xedearekin bat datozen 28 Kanalak proposatutako jarraibideak:
 - Euskararen normalizazioa ahalbidetzeko eta erabilgarritasuna sustatzea.
 - Eskualdeko behar komunikatiboaren zerbitzua ematea.
- Jarraibide horiek gauzatzeko Tolosako Udalak honako jarduera hauek finantzatzen laguntzeko ekarpena egingo dio 28 Kanalari 2024an:
 - Telebista.
 - Webgunea.
 - Facebook.
 - Twitter.
 - JarriOn.
 - 2024ko erronkak.



II.- 28 Kanalak egunean dituela zerga-betebehar guztiak, eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- 28 Kanalak ez daukala debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek Lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritz, 28 Kanalak xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Tolosako Udalaren 2024ko udal aurrekontuan, 0900481.14.33510 partida agertzen dela, 39.772 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25. artikuluan honela dioela: «Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake».

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen du, eta horien artean dago euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege horren 26. artikuluan xedatutakoa gorabehera. Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen dizkiela udalei, bai udal-zerbitzuen alorrean, bai udalerriko bizitzaren eremu askotarikoetan ere. Bide horretan, aukera ematen zaie udalei bitartekoak jartzeko, baita bitarteko arauemaile eta ekonomia-finantzen alorrekoak ere, eta aukera, orobat, euskararen eremuan beste erakunde batzuekin lankidetzan edonolako formulak bilatzeko.

VIII.- 2/2016 Legearen 7.2 artikulua arabera, udalei izendatzen zaiela, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.



IX.- 2/2016 Legearen 7.5 artikulua arabera, toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituztela; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dutela, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dutela, erakunde publiko eta pribatuekin.

X.-179/2019 Dekretuaren 10. artikulua arabera, udalek euskararen ezagutza sustatu eta haren erabilera dinamizatuko dutela beren lurralde-eremuan egiten diren jardueretan. Euskararen erabilera sustatu eta dinamizatuko dute herritarrei zuzendutako prestazioetan ez ezik, sustapen-ekintzetan ere. Horretarako, gizarte-jarduerak finantzatzen lagunduko dute, eta jarduera horietan euskara erabiltzea bultzatuko dute, jardueren xedeak eta ezaugarriak kontuan hartuta. Udalek neurriak planifikatuko dituzte euskararen ezagutza sustatzeko eta euskararen erabilera soziala hedatzeko udal eremuan, arlo hauetan bereziki: bide publikoko publizitatean, lan-jardueretan, lanbide-jardueretan, merkataritzan, kulturaren, elkarte-jardueretan, kirolean, ikus-entzunezkoetan, zinema eta ikuskizunetan, jolas-jardueretan, entretenimendu-jardueretan, udal eremuko prentsan eta prestakuntzan. Dekretu horren 37. artikulua arabera, udalek beste entitate publiko edo pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

XI.- ESEP-Euskara Sustatzeko Erabilera Planean honako hau jasota dagoela: 0. Programa Orokorrak. 07. Dirulaguntzak. 0.07.a: Herriko euskalgintza diruz laguntzea, besteak beste, hedabideak.

XII.- ESEP-Euskara Sustatzeko Erabilera Planean honako hau jasota dagoela: 12. Hedabideak. 07. Dirulaguntza. 12.07.a: Atariaren eta 28 Kanalaren urteko jarduna diruz laguntzeko hitzarmena sinatzea.

XIII.- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleginean, Tolosako Udalak eta 28 Kanalak bat egiten dutela euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premia eta helburuekin, eta, asmo honen zerbitzura, herritarrak euskaraz informatzeko eskualde-mailako komunikabide-sarea sustatzea dela hitzarmen honen xede eta funtsa.

XIV.- Tolosako Komunikabideak SL dela 28 Kanala telebistak eta 28kanala.eus webguneak osatzen duten proiektu komunikatibo multimediarren jabe eta ekoizpen arduraduna.

XV.- 28 Kanalak eratutako euskarazko proiektu komunikatibo honen helburu nagusia dela eskualdean sortzen den informazioa herritarrei era askotako bitartekoen bidez euskaraz komunikatzea, eta honela, euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioan eragiteko Udalak duen plangintzari ezinbesteko ekarpena egiten zaiola.



XVI.- 28 Kanalak kudeatzen duen komunikabide-sarearen eremua Tolosaldea osatzen duten herrietara hedatzen dela, eta onuradun direla bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Tolosakoak.

XVII.- Beharrezkoa dela 28 Kanalak helburu horiekin eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, Udalaren eta 28 Kanalak arteko lankidetzajarduneari sakontzea ere, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko. Betiere, aintzat harturik Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez Udalari ematen zaizkion eskumenak eta 28 Kanalak 2024rako aurkeztutako egitasmoa.

XVIII.- Hitzarmen honek bat egiten duela Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen 2016ko uztailaren 20an emandako Aginduaren helburuekin (EHAA, 2016ko uztailaren 22a, 140. zenbakia), baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak Euskararen erabilera sozialaren inguruan dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileetan (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko martxoaren 7a, 46. zenbakia) finkatutakoarekin ere, eta horien osagarri dela.

XIX.- 28 Kanalak gizartea zerbitzatzea duela helburu, ez duela irabazi-helbururik, eta, sortzen, kudeatzen duen proiektu komunikatiboa hobetzera bideratuko dela osoki.

XX.- Hitzarmen hau egiten dela hurrengo lege-arau hauen babesean: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta azaroaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zein hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatu dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta 28 Kanalaren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea 28 Kanalaren egitasmoaren bidez Tolosako euskararen normalizazioari zein erabilerari, eta, eskualdeko behar komunikatiboari egiten zaion ekarpena babestea eta sustatzea. Asmoa da Euskara Sailaren xedearekin bat datozen helburuak babestea:

- Euskararen normalizazioa ahalbidetzeko eta erabilgarritasuna sustatzea.
- Eskualdeko behar komunikatiboaren zerbitzua ematea.



Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Jarraibide horiek gauzatzeko 28 Kanalaren jarduera hauei lagunduko zaie:

- *Telebista.*
- *Webgunea.*
- *Facebook.*
- *Twitter.*
- *JarriOn.*
- *2024ko erronkak.*

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantzaketa.

Tolosako Udalak dirulaguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2024ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 39.772 eurokoak izango dira, udal-aurrekontuko 0900481.14.33510 partidaren kargura. Dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantzaketa-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.



Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion sailari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak erantsi behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntza eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.

Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan,



dirulaguntza kalkulatu da erreferentziatzen harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintzak eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egin behar da DLOren 30. artikuluan, DLOren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatu behar da «justifikatzeko kontu erraztua» izeneko modalitatearen bidez, honako dokumentazio hau duela:

1. Jarduera-memoria.

Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jardueramemoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarak gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, memorian sexuaren arabera bereizita adieraziko da honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, titularrak eta langileak, eta dirulaguntza-eskaeraren xedea den zerbitzua emateko erakundeak kontratatutako langileak.

Memorian berariaz jaso beharko da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, lortutako emaitzen ebaluazioa egin beharko da, lortutakoa aurreikusitakoarekin alderatuta.

2. Gastuak (GAS dokumentua).

Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (xls.), sinadurarik gabe.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, Tolosako Udalak, gastu horri dagokionez, zer ehuneko finantzatu duen adieraziko da.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastuen eta inbertsioen zerrenda diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da, izandako desbideratzeak adierazita.

Gastuaren zenbateko osoak diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostu osoa islatu beharko du.

3. Balantzea (BAL dokumentua).



Diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da. Entitate onuraduneko presidenteak edo idazkariak sinatu beharko du.

GAS dokumentuko gastuen zenbatekoek bat etorri beharko dute BAL dokumentuko gastuen zenbatekoekin.

4. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

5. Hiru hornitzailei eskatutako hiru aurrekontuak, baldin eta diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu. Hau da salbuespena: ezaugarri bereziak izateagatik, merkatuan ez egotea horiek egin, eman edo hornitzen dituen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egitea. Inguruabar horiek behar bezala justifikatu beharko dira.

Dokumentazio horrekin batera, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

- a) Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak, eskatutako laginari dagozkionak.*
- b) Dokumentazio horren ordainketen egiaztagiria.*

Jatorrizko agiri horiek korrelatiboki ordenatuta aurkeztuko dira, zenbakitutako zerrendan esleitutako hurrenkera-zenbakiaren arabera. Gastuaren faktura eta ordainagiri guztiak PDF dokumentu bakar batean aurkeztu beharko dira.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea hau izango da: 2025eko urtarrilaren 31.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, dirulaguntzaren % 75, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera, eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztean; eta gainontzeko % 25, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztu eta organo eskudunak onetsitakoan.

Beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.



Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean; esate baterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionalari edo haren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berberarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Hizkuntza-normalizaziorako helburuei jarraikiz, euskara sustatzeko irizpideak jarriko ditu Udalak, eta haiek bete beharko ditu onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatzean. Irizpideak zehazteko oinarri hartuko diren printzipioak azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan zehaztutakoak dira, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboari buruzkoan zehaztutakoak, hain zuzen.

Hamaikagarrena: Genero-berdintasuna.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

- *Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.*
- *Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoia direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.*
- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.*
- *Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo*



bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.

Hamabigarrena: Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzordeak funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea. Honako hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea: Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzaburu Garikoitz Goikoetxea Etxeberriak eta 28 Kanaleko ordezkari Ion Aldanondo Albisuk.

Tolosako Udalak ahalmena du egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalauugarrena: lan- eta zerga-legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienez.

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau



garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitekeen guztian.

Hemezortzigarrena: Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.

Tolosako Udalak zuzenean kontsultatuko du bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan —NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez—, behar duen informazioa eskuratzeko eta, hala, egiaztatzeko ea betetzen diren edo ez dirulaguntza lortzeko baldintzak, eta, bereziki, honako datu hauek kontsultatuko ditu: egunean izatea Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan, eta enpresaren datuak. Hori guztia honako artikulua hauei jarraituz: 39/2015 Legearen 28. artikulua, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikulua. eta 38/ 2003 Legearen 14. artikulua.

Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean, goiburuan aipatutako toki eta egunean, eta nik, idazkari akzidental naizen honek, fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA
Garbiñe Marzol Ormazabal

28 KANALEKO ORDEZKARIA
Ion Aldanondo Albisu

Nire aurrean,

IDAZKARIA
Begoña Garmendia Vazquez

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea Tolosako Komunikabideak SLri, Euskara eta Hezkuntza Sailari, eta Kontuhartzaitza Sailari.

LAUGARRENA.- Iragarkia igortzea Dirulaguntzen Publizitate Sistema Nazionalera.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza Tolosako Udalaren gardentasun-atarian argitaratzea.



TOLOSAKO
UDALA

2024DO200005

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake bi hilabete epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Garbiñe Marzol Ormazabal

Begoña Garmendia Vazquez



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024DO200005-28K dekretua/28K dekretua ()